

## ARABAKO FORU ALDUNDIA

## DIPUTACIÓN FORAL DE ÁLAVA

## Administrazio Xedapenak

## Diputatuen Kontseiluaren Foru Dekretuak

## OGASUN, FINANTZA ETA AURREKONTU SAILA

6534

**FORU DEKRETUA 48/2013, abenduaren 24ko Diputatuen Kontseiluarena, pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren zuzeneko zenbatespeneko metodoaren modalitate erraztua aplikatzen duena.**

2014ko urtarrilaren 1etik aurrera ondorioak izango dituen azaroaren 27ko 33/2013 Foru Araua, pertsona fisikoen errentaren gaineko zergari buruzkoa, indarrean sartzearekin bat, hainbat berrikuntza izango dira, besteak beste, jarduera ekonomikoen etekina kalkulatzeko zenbatespen objektiboaren metodoa desagertzea.

Jarduera ekonomikoen etekina kalkulatzeko metodo hori desagertzearen ondorioz, 2013 zerga aldian beren jarduera ekonomikoetako baten etekin garbia ateratzeko zenbatespen objektiboko metodoa erabili zuten zergadunak metodo horretatik bazter uztea ekarriko du.

Beraz, honako foru dekretuaren xede da zergadun horiek guztiak pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren zuzeneko zenbatespeneko metodoaren modalitate erraztuan sartzea, modalitate hori baliatzeari esanbidez uko egiten badiote izan ezik.

Arabako Foru Administrazioaren Aholku Batzordearen Arautegi Organikoak 3. artikuluko hiruugarren paragrafoan aurreikusitakoaren arabera, batzorde horren txostena ez da aginduzkoa.

Zerga Araudiaren Zerbitzuak horren inguruan emandako txostena aztertu da.

Horregatik, Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatuak proposatuta eta Diputatuen Kontseiluak gaur bertan egindako bilkuran gaia aztertu ondoren, hauxe

## XEDATZEN DUT

Artikulu bakarra. Modalitate erraztua pertsona fisikoen errentaren gaineko zergan.

1. 2013an zehar beren jarduera ekonomikoetako baten etekin garbia zehazteko zenbatespen objektiboko metodoa baliatu duten zergadunek, 2014ko urtarrilaren 1etik aurrera, zuzeneko zenbatespeneko metodoaren modalitate erraztua baliatuko dute, modalitate horren aldeko esanbidezko aukeraketa egin behar izan gabe; betiere, hura baliatzeko azaroaren 27ko 33/2013 Foru Arauak eta aplikatzeak diren xedapen arauak jasotako baldintzak betetzen badituzte.

2. Oro har, 1. atalean jasotzen den zuzeneko zenbatespeneko metodoaren modalitate erraztua baliatuko da, zergadunak, esanbidez eta 2014ko martxoaren 1a baino lehen, zuzeneko zenbatespeneko metodoaren modalitate arrunta aplikatzea nahi duela adierazi ezean.

## AZKEN XEDAPENA

Foru dekretu hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean eta 2014ko urtarrilaren 1etik aurrera izango ditu ondorioak.

Vitoria-Gasteiz, 2013ko abenduaren 24a.– Diputatu nagusiordea, MARTA ALAÑA ALONSO.– Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko diputatua, AITOR URIBESALGO LORENZO.– Ogasun Zuzendaria, JUAN IGNACIO MARTÍNEZ ALONSO.

## Disposiciones Administrativas

## Decretos Forales del Consejo de Diputados

## DEPARTAMENTO DE HACIENDA, FINANZAS Y PRESUPUESTOS

6534

**DECRETO FORAL 48/2013, del Consejo de Diputados de 24 de diciembre, que aplica la modalidad simplificada del método de estimación directa del Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas.**

La entrada en vigor, con efectos desde el 1 de enero de 2014, de la Norma Foral 33/2013, de 27 de noviembre, del Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas supone, entre otras novedades, la desaparición del método de estimación objetiva para el cálculo del rendimiento de actividades económicas.

La desaparición de este método de cálculo del rendimiento de actividades económicas implica la exclusión del mismo de todos aquellos contribuyentes que durante el periodo impositivo 2013 determinaron el rendimiento neto de alguna de sus actividades económicas mediante el citado método de estimación objetiva.

Es, por lo tanto, objeto de este Decreto Foral la inclusión de estos contribuyentes dentro de la modalidad simplificada del método de estimación directa del Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas, salvo renuncia expresa a dicha modalidad.

Según lo previsto en el párrafo tercero del artículo 3 del Reglamento Orgánico de la Comisión Consultiva de la Administración Foral de Álava, no es preceptivo el informe de la citada Comisión.

Visto el informe emitido al respecto por el Servicio de Normativa Tributaria.

En su virtud, a propuesta del Diputado de Hacienda, Finanzas y Presupuestos, y previa deliberación del Consejo de Diputados en Sesión celebrada en el día de hoy,

## DISPONGO

Artículo Único. Modalidad simplificada en el Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas.

1. Los contribuyentes que durante el periodo impositivo 2013 determinaron el rendimiento neto de alguna de sus actividades económicas mediante el método de estimación objetiva, aplicarán a las mismas, a partir de 1 de enero de 2014, la modalidad simplificada del método de estimación directa siempre que cumplan los requisitos establecidos para su aplicación en la Norma Foral 33/2013, de 27 de noviembre, del Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas, y en las disposiciones reglamentarias que sean de aplicación, y sin necesidad de ejercer opción expresa por dicha modalidad.

2. Será de aplicación la modalidad simplificada del método de estimación directa a que se refiere el apartado 1, salvo que el contribuyente opte de modo expreso, antes del día 1 de marzo de 2014, por la aplicación de la modalidad normal del método de estimación directa.

## DISPOSICIÓN FINAL

El presente Decreto Foral entrará en vigor el día siguiente al de su publicación en el BOTA y producirá efectos desde el 1 de enero de 2014.

Vitoria-Gasteiz, a 24 de diciembre de 2013.– Teniente de diputado General, MARTA ALAÑA ALONSO.– Diputado de Hacienda, Finanzas y Presupuestos, AITOR URIBESALGO LORENZO.– Director de Hacienda, JUAN IGNACIO MARTÍNEZ ALONSO.